

Asisko gutuna

2025ko urtarrila

3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

195. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Zer gutxi egin dezakedan energia faltan hasten naizenean! Baina zer da asko eta zer gutxi? Zein Guztia iragankor den kulturaren bizi gara. Ezerk ez du irauten. Hala ere, ez al dira gertatzen betierekotasun balioa duten keinu txikiak?

Gogoetarako gaia

Dena galduko ote da ala ez da ezer ere galduko?

Zientziek etengabeko aldaketaz hitz egiten digute, materiaren eta energiaren mailarik txikienetatik ezagutzen ditugun unibertso galaxien konstelazio handietaraino. Gure mailan ere etengabe aldatzen ari gara: kultura, politika, harreman pertsonalak, balioak... Honen arabera, askok esaten dute, eta gure artean oso zabaldua dago, ezerk ez duela irauten; eta horregatik dena galduko dela. Ez da ideia berria giza pentsamenduan, baina garai batzuetan badirudi pentsatzeko modu hori dela nagusi.

Hurrengo urratsa azkar dator: ezerk ez du betierekotasun baliorik. Horren arabera, denak pisua eta trinkotasuna galtzen du. Betiereko maitasuna, betiko bizitza, betirako justizia... unibertsoaren erdigunea direla uste duten baina ezerezetik ezerezera bidean dauden gizaki horien ametsak besterik ez lirateke.

Hala ere, gure bizitza zehatzak, arretaz errepikatzen badiogu, beste funtzionamendu mota

batek markatzen ditu. Modu batera edo bestera benetan bizi arazten gaituena, norabide bat edo bestea hartzeraren garrantzian, ez dira pentsamendu-ereduak, baizik eta gertaera erabat hauskor eta galkorrak dira, eta, hala ere, betiko markatzen gaituztenak. Pertsona maitagarri batekin topo egiteak, ustekabeko atsekabeak, nire bizitzaren maitasunak, bidegabekeriak eragindako haserreak, unibertsoaren neurrigabetasunaren aurrean sentitutako dardarak edo intsektu baten hegaldiak... pertsona baten historia osoa baldintzatzen duten bizi-erabakiak hartzeraren bultzaketa; eta, gertatzen da gainera.

Filosofo batek dio: "Dena galduko da, baina ia ziur eskuzabaltasun-ekintza baten lodiera ikusezinak Lurraren mantuarena gainditzen duela. (...) Dena galduko da, baina nolabait, pertsona batek beste bati laguntzeak mila galaxia zerutik desagertzea baino gehiago da".

Ebanjelio pasartea: Mt 10,40-42

«Zuek onartzen zaituztenak neu onartzen nau, eta ni onartzen nauena bidali nauena onartzen du. Profeta bat profeta delako onartzen duenak profetari zor zaion saria jasoko du; eta gizon zuzen bat zuzena delako onartzen duenak gizon zuzenari zor zaion saria jasoko du; eta txiki hauetako bati, nire ikasle delako, ontzixka bat ur fresko besterik ez bada ere ematen diona, benetan diotsuet ez dela saririk gabe geldituko».

Frantziskotar espiritueltasuna

Oi zein zorioneko eta bedeinkatuak diren, ordea, Jainkoa maite eta Jaunak berak Ebanjelioan esana betetzen dutenak: *Maita ezazu Juan, zeure Jainkoa, bibotz-bibotzez eta adimen guztiz, eta lagun burkoa zeure buru bezala.*

Eta ager dezagun gure *egiteetan bibotz-berrituak* gaudela. Eta maita ditzagun lagun hurkoak geure burua bezala. Eta norbaitek bere burua bezala maitatu nahi ez baditu, ez diezaiela bederen gaitz egin on baizik.

Izan dezagun, bada, karitatea eta apaltasuna. Eta egin dezagun limosna, limosnak garbitu egien baititu arimak bekatuen zirkinetatik. Izan ere, gizakiek galdu egiten dituzte mundu honetan uzten dituzten gauza guztiak; berekin eramaten dituzte, ordea, karitatearen ordaina eta egindako limosnak, hauen saria eta ordain egokia jasoko baitut Jaunarengandik.

Horrela jokatzeko eta horretan azkeneraino iraungo duten gizon-emakume *guztien gain Jaunaren Espiritua kokatuko da* eta beraiengan izango du bizileku eta egoitza. Eta zeruko Aitaren seme-alaba izango dira, haren obrak egiten baitituzte. (2FeG 18.25-27.30-31.48-49)

Otoitza

Eta orduan Jainkoak gauza txiki bat erakutsi zidan,
Esku-ahurrean sartzen zitzaidana,
Bolatxo bat bezain biribila,
Ez hurra baino handiagoa.

Begira geratu nintzaion.
Zer izan zitekeen argitu nahian.
Eta Jainkoak esan zidan:
"Hau da kreaio guztia".

Ni harrituta nengoen oraindik iraun zezakeelako.
Eta ez zelako bat-batean desegiten,
Ezerezean geratu gabe, hain zen txikia.

Eta berriro Jainkoak hitz egin zidan nire adimenean:
"irauten du, bai orain eta bai beti,
Jainkoak maite duelako"

Gauza txiki honetan hiru propietate ikusi ditut.
Lehena da Jainkoak sortu duela,
bigarrena, Jainkoak maite duela
eta hirugarrena da Jainkoak eusten duela.

(Norwich-ko Juliana XIV-XV medekoa)

Gutuneko azken hitzak

Bizitza laburra da, baina une askok betierekotasuna balio dute.

2025ko urtarrileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1. Lk 2, 16-21	8. Mk 6, 34-44	15. Mk 1, 29-39	22. Mk 3, 1-6	29. Mk 4, 1-20
2. Jn 1, 19-28	9. Mk 6, 45-52	16. Mk 1, 40-45	23. Mk 3, 7-12	30. Mk 4, 21-25
3. Jn 1, 29-34	10. Lk 4, 14-22	17. Mk 2, 1-12	24. Mk 3,13-19	31. Mk 4,26-34
4. Jn 1, 35-42	11. Lk 5, 12-16	18. Mk 2, 13-17	25. Mk 16,15-18	
5. Jn 1, 1-5.9-14	12. Lk 3,15-16.21-22	19. Jn 2,1-12	26. Lk 1,1-4; 4,14-21	
6. Mt 2,1-12	13. Mk 1, 14-20	20. Mk 2, 18-22	27. Mk 3,22-30	
7. Mt 4,12-17.23-25	14. Mk 1, 21-28	21. Mk 2, 23-28	28. Mk 3, 31-35	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Urtarrileko otoitza hilaren
30ean izango da